

euskotren 

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. PLANA EUSKOTREN 2026-2029

Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S. A.




FUNDAZIOA

Generoko Aholkularitza
Consultoría de Género


2026ko martxoa

Aurkibidea

1. SARRERA.....	3
2. ARAU- ETA KONTZEPTU-ESPARRUA.....	4
3. HITZARMENEN ALDEEN EBAZPENEA.....	4
4. EREMU PERTSONALA, LURRALDEKOA ETA DENBORAZKOA.....	4
5. DIAGNOSTIKO-TXOSTENA ETA ORDAINSARI-AUDITORETZAREN EMAITZAK.....	5
6. KUDEAKETA-EREDUA.....	10
8. PLANGINTZA-, EZARPEN-, JARRAIPEN-, EBALUAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-SISTEMA	31
8.1. Plangintza eta ezarpena.....	31
8.2. Jarraipena eta ebaluazioa.....	31
8.3. Komunikazioa.....	33
9. 10. JARRAIPEN BATZORDEAREN ERAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA, EBALUAZIOA ETA ALDIZKAKO BERRIKUSPENA.....	35
10. ALDAKETAK EGITEKO PROZEDURA.....	36
11. ERANSKINAK.....	37
1. ERANSKINA: terminoen glosarioa	37
2. ERANSKINA: neurri bakoitzaren jarraipen-fitxa.....	42
3. ERANSKINA: galdetegia eta urteko jarraipen-txostena.....	43
4. ERANSKINA: azken ebaluaziorako txostena	45

1. SARRERA

Dokumentu hau EUSKO TRENBIDEAK-Ferrocarriles Vascos SA enpresaren (aurrerantzean, Euskotren) 2026-2029rako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Plana da.

ENPRESAREN DATUAK

Sozietate-izena	EUSKO TRENBIDEAK-Ferrocarriles Vascos, S.A.
IFZ	A-48-136550
Egoitza soziala	ATXURI 6 - 48006 BILBAO
Izaera juridikoa	Pertsona Bakarreko Sozietate Anonimoa
Eratze-data	1982ko maiatzaren 24a
Entitatearen arduraduna	Zuzendari nagusia: Javier Seoane
Berdintasuneko arduraduna	Xabier Losantos. Lan Harremanetako eta negoziazio kolektiboko arduraduna. Eneritz García Atxaerandio. Gizarte-kudeaketako eta berdintasuneko arduraduna.
Jarduera-sektorea	Garraioak
Produktuak/Jarduerak/Zerbitzu nagusiak	Trenbide-garraioaren zerbitzuak, bai pertsonentzat bai salgaiantzat, gurpildun materialaren mantentze-lana barne. Pertsonak autobusez eta tranbiaz garraiatzeko zerbitzuak, gurpildun materialaren mantentze-lana barne.
Langileen dimentsioa 2023	2024ko plantilla
Lantoki kop.	Egoitza nagusia Bilbon Zenbait lantoki 3 lurralde historikoetan (Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan): trenbide-, tranbia- eta autobus-tailerrak; administrazio-zentroa Donostian eta eragiketako langileen egoitzak.
Eskuratutako berdintasuneko ziurtagiri edo aitopanak	Emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko entitate laguntzailearen aitopena
Hitzarmen kolektiboa	2025-2028rako Euskotrenen Hitzarmen Kolektiboa.

2. ARAU- ETA KONTZEPTU-ESPARRUA

Berdintasun-politiken garapena sustatzeko eta Euskotrenek arlo horretan dituen erantzukizun eta betebeharrei erantzuteko, V. Plan honek honako politika- eta arau-esparruaren eskakizunak jasotzen ditu:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bat egina onartzen duena.
- 11/2014 Dekretua, otsailaren 11koa, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitortzen duena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako.
- 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena.
- 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, Berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituen eta Laneko hitzarmen eta akordio kolektiboaren erregistroari eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 11koa, Emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-berdintasunarena.
- 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa.
- EAEen emakume eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia.
- 2030 Estrategia eta plan operatiboak, EAEko soldata-arrakala murrizteko.
- Garapen jasangarrirako helburuak. NBE.

3. HITZARMENEN ALDEEN EBAZPENAK

Euskotrenen V. Berdintasun Plan hau horretarako sortutako negoziazio batzordeak onartu du. Batzordea enpresaren ordezkariak eta alde sozialaren ordezkariak eratzen dute.

4. EREMU PERTSONALA, LURRALDEKOA ETA DENBORAZKOA

Euskotrenen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Plan hau langile guztiei zaie aplikagarri, bai hitzarmen barrukoei bai kanpokoei, eta, neurri batzuetan, baita erabiltzaileei eta entitate hornitzaileei ere.

Euskotrenen Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren iraunaldia 4 urte naturalekoa izango da. 2026-2029. Indarrean sartuko da 2026ko martxoan erregistratzen denetik 2029ko abenduaren 31ra arte.

Hala ere, indarraldian, urtean behin, adosten diren berrikuspenak eta eguneratzeak egingo dira.

5. DIAGNOSTIKO-TXOSTENA ETA ORDAINSARI-AUDITORETZAREN EMAITZAK

Euskotrenek, 2006. urteaz geroztik, **berdintasunarekin duen konpromisoa** berdintasun-planen bidez garatzen du. 2010ean eta 2011n, I. Plan honen ebaluazioa egin zen, bai eta Emakume eta Gizonen berdintasun-egoerari buruzko Diagnostiko bat ere, eta, haren bidez, 2012-2016rako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana prestatu zen. Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana 2017tik 2022ra bitarterako onartu zen eta IV. Plana, 2023-2025erako. Gaur egun, **V. Plana** prestatzen ari gara, eta, hura prestatzeko, honako ondorio hauek atera dira planaren diagnostikotik eta ordainsari-auditoretzatik.

Aurreko planaren ebaluazioari dagokionez, bertan 3 erronka nagusi jaso ziren (1. erronka: antolakuntza-kultura; 2. erronka: pertsonen kudeaketa; eta 3. erronka: ingurunearekiko harremana), eta aurreikusitako jarduketaren batez besteko betetze-maila bildu da (% 54 eginda, % 19 partzialki eginda eta % 27 egin gabe); azpimarratu behar da 1. erronka dela gehien garatu dena. Diagnostiko honetarako egindako hausnarketatik abiatuta prozesuaren **bultzatzaile** gisa jasotzen dira berdintasun-planak derrigorrezkoak direla ulertzea, hedatzean hainbat arlok parte hartzea, sentsibilizazio-jarduketak eta komunikazio-euskarriak gauzatzea, eta inguruneke berdintasunaren aldeko sareetan parte hartzea, besteak beste. Bestalde, **oztopo** gisa identifikatu dira honako hauek: sindikatuekin adostu ez den plana izatea, generozeharkakotasuna arloetan modu sistematikoagoan ez ezartzea, arloen arteko komunikazio eskasa izatea, eta aurrekontu txikia eta ezezaguna izatea, besteak beste.

Diagnostikoko hainbat arlotan jasotako datuei dagokienez (2024ko datuak), azpimarratu beharreko lehenengo gauza da Euskotrenek 2024an guztira 1.410 pertsonako **plantilla** izan duela; horietatik 422 emakumeak izan dira (% 29,92), eta 988 gizonak (% 70,07). Ikus daiteke pixkanaka aurrera egin dela, 2009an % 18,71 izatetik 2024 % 29,93 izatera iritsi arte. **Aurrera egiten ari da emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-tza orekatua lortzeko**, berdintasunerako arau eta politikek ezarri dutenaren arabera.

Diagnostikoari **diskriminaziorako beste faktore batzuk** gehitu zaizkio, hala nola adina, jatorria edo dibertsitate funtzionala; hala, genero-ikuspegitik zeharkako begirada aplikatzen aurrera egiten da. **Adinari** buruz, ikus daiteke emakumeek gizonek baino ordezkari-tza pixka bat handiagoa dutela enpresan dagoen proportzionaltasunaren arabera (30/70) 40-49 urteko tartean, proportzionaltasuna (30/70) mantentzen da 50-59 urteko tartean, eta emakume gutxiago daude batez ere 60 urtetik gorakoan artean, 20-29 urte eta 30-39 urte arteko tartetan. Bestalde, emakume eta gizon gehienak 40-49 urteko tartean daude, zeina, Emakunderen arabera, gurasotasun-tartea den (25-45 urte), baita 50-59 urteko tartean. Datu horrek adierazi dezake plantillak adingabeak (25-45 urteko tartea) edo **mendeko adinekoak** (50-59 urteko tartea) **zaindu beharra** izan dezakeela, eta, ondorioz, gakoa izan daiteke zaintzarako bizitza pertsonala eta lan-bizitza kontziliatzea errazteko jarduketak garatzea. **Dibertsitate funtzionalari** dagokionez, jasotako datuek adierazten dute enpresan dauden

emakume eta gizonen arteko proportzioa gutxi gora behera mantentzen dela: 9 emakume eta 24 gizon daude (% 27,27 E(G) / % 72,73 G(E)).

2022. eta 2024. urteetan (IV. Planaren aldia), guztira 167 emakume **kontratatu** dira **plazak betetzeko (aldi baterakoak edo finkoak)**, eta 265 gizon kontratatu dira; hortaz, % 38,65 emakume kontratatu dira gizonen dagokienez. Datu hori emakumeek enpresan duten proportzioaren gaineratik dago, eta ordezkariak orekatutik gertu dago. Horrenbestez, esan daiteke Euskotrenen plazak betetzeko emakumeak kontratatzeke joera dagoela. **Lanbideren** bidez eginiko kontratazioek adierazten dute 16 emakume eta 24 gizon kontratatu direla (40/60, sexuaren arabera orekatuak diren datuak). Hala ere, lanpostu-mota bakoitza aztertuz ikus daiteke Lanbidetik ez dela emakume hautagairik bidali honako lanpostu hauetarako: automoziozko teknikaria, mekanikako-pneumatikoen-trean mantentze-lanetarako teknikaria; eta ez da Lanbideko emakume bat ere kontratatu tren-tranbiako agentearen lanpostuetan (hautagaitzak jaso diren arren).

Hitzarmen pean araututako prozesuetan, orokorrean, berdintasun-irizpideak aintzat hartzen dira (enpresak eginiko kontrol-zerrenda batean ezarriak). Hitzarmenaren arau-esparrutik kanpo geratzen diren prozesuetan, eta kanpoko hautaketa-aholkularitzekin egiten direnetan, deskribatuta ez daudenez, ezin izan da egiaztatu irizpide horiek aintzat hartzen diren.

Enpresako zuzendaritzari (arloak) dagokionez, jaso da Zuzendaritza Nagusian eta Giza Baliabideak arloan emakume eta gizonen ordezkariak orekatu dagoela (40/60 ordezkariak orekatuaren arabera). Operazioak eta plan estrategikoa eta Plangintza, eskulana eta sistemak zuzendaritzetan, emakume eta gizonen arteko proportzioa enpresako proportzioaren antzekoa da. Zuzendaritza Korporatiboan eta batez ere Zuzendariordetza Teknikoan, ordea, emakumeek ordezkariak txikiagoak dute.

Lanpostuei dagokienez, enpresako emakumeen kontzentrazio handiena operazio eta mantentze-lanetarako langileen artean dago, eta ondoren langile komertzial eta laguntzaileetan; bestetik, gizonen kontzentrazio handiena operazio eta mantentze-lanetarako langileen taldean dago. Lanpostu bakoitzean gizonen aldean dagoen emakumeen ehunekoa aztertuz gero, ikus daiteke emakumeek ordezkariak eskasa dutela zuzendaritza eta kudeaketako lanpostuetan eta operazio eta mantentze-lanetarakoetan, eta emakumeek eta gizonen ordezkariak orekatu dutela komertzialen eta laguntzaileen lanpostuetan.

Mailei eta emakume eta gizonak bakoitzean duten banaketari dagokienez, 2024an, Euskotrenen, eta enpresan bi sexuek duten proportzioa aintzat hartuta, ikusi da 13 mailetatik 8 maskulinizatuta daudela (emakumeekin alderatuta gizonen ehunekoa % 60tik gorakoa), 3 orekatuta daudela (bi sexuetako batek ere ez du % 40tik beherako ordezkariak), eta 2 feminizatuta (gizonekin alderatuta emakumeen ehunekoa % 60tik gorakoa). Feminizatuak 6. eta 7. mailak dira, eta maskulinizatuak goragoko mailak. Horren arrazoia izan daiteke trenbidearen sektorean historikoki egon den lan-banaketa eta emakumei lanpostu jakin batzuetara iristea edo lanpostu feminizatuagoak baloratzea eragozten dieten genero-estereotipoak, besteak beste.

Enpresan ematen den **barne-prestakuntzari** dagokionez, eta sexuaren arabera eginiko **prestakuntza-ordu guztiak** kontuan hartuta, lehenik eta behin ikusten da emakumeek eta gizonek eginiko prestakuntza-ordu guztien ehunekoa (% 31,98 / % 68,02) bat datorrela enpresan emakumeek eta gizonek duten proportzionaltasunarekin. **Mailaren arabera**, ikus daiteke emakumeen partaidetzarik handiena langile komertzial eta laguntzaileetan dagoela (emakumeen % 51,52), eta, jarraian, erdi-mailako agintarien lanpostuetan (% 35,90 emakumeak). Arloko arduradunetan eta zuzendaritza eta kudeaketako langileetan, prestakuntzan parte hartzen duten emakumeen ehunekoa nabarmen txikiagoa da (% 23,17 eta % 11,30, hurrenez hurren), lanpostu bakoitzean hartzen duten ehunekoaren azpitik geratu arte.

2024an **berdintasunari buruz emandako prestakuntzari** dagokionez, parte-hartzaile kopuru handia egon da, bai emakumeen bai gizonen artean, Euskotrenen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, batez ere "Emakume eta gizonen berdintasunarekiko sentsibilizazioa" prestakuntzan, zeinetan 921 pertsonak parte hartu zuten, 303 emakumek eta 618 gizonek. Prestakuntza hori borondatezkoa eta ordaindua izan zen, lan-ordutegitik kanpo egin baitzen.

Enpresako **sustapenaren** arloan, 2022. eta 2024. urteen artean hitzarmenaren barruan eginiko barne-sustapenei buruzko datuak jaso dira. Ildo horretatik, ikusi da, lehenik eta behin, honako lanpostu honetan enpresan duten proportzioaren gainetik geratzen diren emakumeen **hautagaitzak** egon direla, handienetik txikienera: Kontu-hartzailetzako arduraduna, kontabilitate fiskaleko teknikaria, administraria, administrazio-kudeatzailea, TEVA teknikaria, bezeroentzako informazioa eta arreta, geltokietako informazio-operadorea, lineako agente komertziala, operazio-agentea, tranbiako Aginte Postuko agentea, treneko agentea, gordailuko operazio-teknikaria, trenbide-ikuskaria, operazioen zerbitziburua, trenbideko agente hezitzailea, tren-tranbiako agentea. Lehenengoak gehiago ematen dira emakumeek bete ohi dituzten lanpostuetan, eta azkenak gizonek bete ohi dituztenetan. **Poltsara doazen** pertsonak aintzat hartuta, badaude **emakumeen kontrako eragina** duten 4 prozesu, berdintasun-irizpideen arabera berrikusi behar direnak, jakiteko eragin hori sortzen duen prozesuko eskakizun edo atalik ote dagoen eta prozesurako benetan premiazkoa ote den: kontabilitate fiskaleko teknikaria, errepideko gidaria-garbitzailea, tranbiako APko agentea eta trenbideko agente hezitzailea. Bestalde, azpimarratu behar da duela gutxi **aurre-hitzarmen kolektiboan**, garapen **profesionaleko sistema** onetsi dela, eta genero-ikuspegitik berrikusi beharko da, sustapenean kontrako eraginik ez sortzeko.

Lan-baldintzen harira, 2024an denborazkotasun orekatua egon da sexuaren arabera, egindako kontratazio guztiak kontuan hartuz gero, gizon gehiago egon dira lanaldi partzialetan (errelebo-kontratuetan), eta egutegiaren edo txandaren araberako ordutegia dutenen artean oreka egon da gizonen eta emakumeen artean.

Emakumeek eta gizonek guztira izandako **istripuei** dagokienez, 2024an antzeko kopurua izan dute. Enpresan emakume gutxiago daudenez, esan daiteke istripu gehiago dituztela, batez ere baja ez dakarten istripuen kasuan. Bestalde, ikusi da badirudiela emakumeek aldi baterako ezintasun gehiago dituztela eta ezintasun horiek gehiago irauten dutela egunetan, gizonen ezintasunen aurrean.

Halaber, ordainsari-arrakalari eragin ahal dion beste alderdi **bat legezko zaintzagatiko lanaldi-murrizketak** dira. 2024an bildutako datuetatik ondoriozta daiteke 160 murrizketa egon direla legezko zaintzagatik; horietatik 92 emakumeek erabili dituzte, eta 68 gizonak (% 57,5 emakumeak eta % 42,4 gizonak). Oraindik ere, emakume gehiagok erabiltzen dute neurri hori, nahiz eta enpresan uste den gero eta gizon gehiagok erabiltzen dutela.

Langileen lan-osasunari lotuta, honako hau azpimarratu behar da 2024. urteari buruz: emakumeek **baja** gehiago dituzte (enpresan duten proportzioaren gaineratik), nahiz eta egunetan batez bestean gutxiago irauten duten gizonen aldean, eta nahasmendu mentalekin eta arnasakoekin lotutako baja gehiago dituzte; gizonen kasuan, arrazoi osteomioartikularrei lotutako baja gehiago dituzte. **Laneko istripuen** arloan, istripua izan duten emakume eta gizonen zenbatekoa osoa antzekoa izan da 2024an. Hala ere, emakumeen % 8,18k istripua izan du, gizonen % 3,96aren aldean. Enpresan emakume gutxiago daudenez, esan daiteke istripu gehiago dituztela, batez ere baja ez dakarten istripuen kasuan. Sexu-jazarpenari eta sexuaren ondoriozkoari dagokionez, jaso da azken 4 urteetan ez dela **sexu-jazarpenaren eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenaren** ondoriozko salaketarik, eta, langileei egindako inkestan, pertsona batzuek, bai gizonek bai emakumeek, iritzi dute enpresan horrelako egoeraren bat pairatu dutela edo pairatu duen norbaiten egoeraren bat ikusi dutela, baina ez da argi geratu lankideen aldetik pairatu dituzten edo enpresatik kanpoko pertsonen aldetik (erabiltzaileak, hornitzaileak, etab.).

Behin aurreko alderdiak jorratuta, sarbidean eta sustapenean, denborazkotasunean, legezko zaintzagatiko murrizketak hartzean dagoen lan-banaketari buruzkoak, eta **enpresako ordainsari-arrakalari** eragin ahal diotenak, jarraian, txosten honetarako jasotako batez besteko arrakalen datu nagusiak bildu ditugu: Benetako batez besteko arrakala osoa: % 10; eta Alderatutako batez besteko arrakala osoa: 3%.

Azpimarratu behar den lehenengo gauza da **benetako** batez besteko **arrakala osoa** eta **alderatua** EAEko ordainsari-arrakalaren azpitik daudela (Estatistikako Institutu Nazionalaren Ordainsari Egituraren Inkestatik aterata); EAEko arrakala, txosten hau egin den egunean, % 12,8koa da urteko batez besteko irabazietan.

Mailaren arabeko arrakalaren benetako batezbestekoari buruzko adierazlearen arabera, 3., 6., 7., 9., 10., 11. eta 14. mailetan emakumeen aldeko arrakala dago, batez ere 7. eta 14. mailetan. 14. mailan dagoen emakumeen aldeko arrakalaren arrazoiak da kontratu-egoera desberdinak, txanda-kontratuak, ABEak (aldi baterako ezintasunak) eta maila horretan sartu berri diren gizonak daudela, eta, ondorioz, gizonak ez dutela urte osoan zehar lan egin.

Bestalde, azpimarratu behar da **2025ean lanpostuen balorazioa** egin dela, non genero-ikuspegia aplikatu den, balorazio horren aholkulari arduradunaren arabera. Txosten honetarako jaso da nola aplikatu duen genero-ikuspegia aholkularitza-enpresa horrek, Eusko Jaurlaritzak helburu horrekin proposatutako hainbat faktore txertatuz. Balorazio horretan, egon litezkeen arrakalak aldatu dira, maila horiek 2024an aplikatu izan balira egongo liritekeen emaitzekin alderatuz. Maila batzuetan, genero-arrakala murrizten da bi sexuen artean, eta beste batzuetan handiagoa da.

Amaitzeko, ondorioztatu da Euskotrenen ordainsari-arrakala osoak EAEko arrakalen azpitik daudela, baina, oraindik ere, maila batzuetan aldeak daudela, bai emakumeen bai gizonen alde. Edozein kasutan, aintzat hartuta oraindik ere ordainsari-aldeak daudela eta aldeok murrizten direla benetakoak izatetik alderatuak izatera igarotzen direnean, izan liteke oraindik ere emakumeek ordainsari txikiagoa izatea eragiten duten lan-baldintzak egotea, hola nola sarbide txikiagoa izatea zuzendaritzako lanpostuetara, legezko zaintzagariko lanaldi-murrizketa handiagoak hartzea, aldi baterako ezintasun gehiago eta luzeagoak hartzea, etab.

Izan ere, alde horien jarraipena egiten jarraitzea, gardentasunari eta partaidetzari eutsiz, eta generoaren araberrako ordainsari-arrakalak ezagutzen, nola kalkulatu jakiten, adierazten dutena, arrazoiak eta ondorioak interpretatzen eta nola ekidin identifikatzen aurrera egitea izango da Euskotrenek hurrengo Berdintasunerako Planaren indarraldiko urteetan gainditu beharko duen erronka handia.

Amaitzeko, ondorioztatu da Euskotren berdintasuna lortzeko aurrerapauso irmoak ematen ari dela, eta hala islatu da bildutako datuetako askotan, baina beharrezkoa da enpresako **arlo guztietan emakume eta gizonen arteko oreka handiagoa** lortzeko aurrera egiten jarraitzea (laneko banaketa horizontala nahiz bertikala murriztea -ordezkaritza eskasa duten lanpostuetan, hala nola zuzendaritzan, emakumeak egotea-), **zeharkakotasun handiagoa duen begirada** hartuz, non sexuarekin gurutzatzen diren beste diskriminazio-faktore batzuk mahaigaineratzen diren (jatorria, genero-identitatea eta sexu-orientazioa, dibertsitate funtzionala, adina, etab.). Halaber, funtsezkoa da enpresaren barruan bertako arlo guztietan **generoaren zeharkakotasuna** lortzeko aurrera egiten duen berdintasun-politika ezartzea, arlo guztien arteko partaidetza koordinatu eta partekatua egon dadin, adierazleak kudeatuz eta genero-ikuspegitik aztertuz eta **berdintasunaren inguruko prestakuntza** emanez, lanpostu guztien jarduna barne hartzen duena. Eta, hala, ildo horretatik, etorkizuneko Berdintasunerako V. Planerako neurriak sortzea.

6. KUDEAKETA-EREDUA

Berdintasunerako V. Plan hau garatzeko, kudeaketa-eredu bat aplikatuko da, enpresaren kudeaketa-ereduarekin bat datorrena. Hori dela eta, Plan honen xedea da kudeaketa-sistemetan integratzea (politika eta/edo prozeduretan), eta, horrela, enpresaren eremuetan genero-zeharkakotasunean aurrera egitea, etengabe hobetzeko.

Era berean, genero-adierazle batzuk garatuko dira, eta, haien bidez, berdintasun-planak enpresaren eremuetan izan duen aurrerapena neurtuko da.

Nolanahi ere, Plana zehazteko lehen une honetan, berdintasunerako hurrengo egiturak onartzen dira.

6.1. BERDINTASUNERAKO EGITURAK

6.1.1. Erakunde-maila

Euskotrenen V. Berdintasun Plana Zuzendaritza Korporatiboan eta Giza Baliabideetan kokatzen da, Zuzendaritza Nagusiari atxikita. Zuzendaritza horrek honako eginkizun hauek izango ditu:

- Urtero onartzea, dagokion urteko lehen hilabetean, aurreko urteko Programa Operatiboaren segimendu-txostena eta uneko Programa Operatiboa, aurrekontu erantsiarekin.
- Kudeaketa-eredu honen maila operatiboko ekipoen eta pertsonen esku jartzea berdintasun-plana zabaltzeko behar beste baliabide.
- Enpresaren barnekoari eta kanpokoari enpresak garatzen duen emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko politikaren berri ematea, behar den foro guztietan, bai eta haren emaitzak eta eraginak ere.

6.1.2. Maila operatiboa

Maila honetan honako hauek daude:

1. Berdintasun-politikaren arduraduna zuzendaritza-mailan

- o Berdintasunerako Planaren plangintza, zabalkundea eta ebaluazioa prestatzeko lana koordinatzea.
- o Urteko Programa Operatiboa prestatzea eta ebaluatzea.
- o Tartean diren ekipo eta pertsonen eskura jartzea baliabide pertsonalak, ekonomikoak eta materialak, hura zabaltzeko.
- o Elkarrizketa Berdintasun Planari buruzko informazioaren inguruan tartean diren gainerako arlo eta batzordeekin.
- o Jarraipen Batzordearen bilerak deitzea.

2. Berdintasun-politikaren arduraduna maila teknikoan

- Ekitaldi bakoitzean bere jarduketa-arloari esleitutako neurriak planifikatu eta betearaztea.
- Berdintasuneko erreferenteen taldea koordinatzea (BATERA TALDEA).
- Tartean diren gainerako arloei dagokien Programa Operatiboaren neurriak zabaltzen laguntzea (gutxienez 2 bilera, urtean, arlo bakoitzarekin).
- Urteko Programa Operatiboaren eta urteko segimendu-txostenaren zirriborroa prestatzea.
- Jarraipen Batzordearen bileren aktak idaztea.
- Berdintasun Planean bere jarduketa-arloarekin zerikusia duten jardunaldi, foro eta bestelako ekitaldietan parte hartzea.
- Emakume eta gizonen berdintasunean prestakuntza jasotzea. (gutxienez, 60 orduko prestakuntza jasotzea)

3. Planean inplikaturik dagoen arlo bakoitzeko **berdintasuneko erreferenteak**

- Ekitaldi bakoitzean bere jarduketa-arloari esleitutako neurriak planifikatu eta betearaztea.
- Hura aurrera eramateko jardunbide egokiak eta baliabideak identifikatzea.
- Hura garatzeko dokumentu edo tresnak prestatzea.
- Hura ebaluatzea eta emaitzak erregistratzea.
- Zabalkundea prestatzea eta/edo egindako neurria zabaltzea.
- Dokumentuak eta emaitzak talde eragileari aurkeztea.
- Berdintasun Planean bere jarduketa-arloarekin zerikusia duten jardunaldi, foro eta bestelako ekitaldietan parte hartzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza jasotzea. (gutxienez, 20 orduko prestakuntza jasotzea).

Lantalde bat sortuko da (BATERA TALDEA), eta, hartan, arloetako berdintasuneko erreferente horiek parte hartuko dute, maila teknikoan berdintasun-politikaren arduradun den pertsonarekin batera.

Talde hori bitan batuko da:

- behin, ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan, erreferenteen artean partekatzeke aurreko urteko ebaluazioa, hurrengo urteko plangintza eta berdintasun-planean aurrera egiteko beharrezkotzat jotzen diren albiste, legegintzako nobedade eta bestelako kontuak.
- Beste behin, ekitaldiaren erdialdean, programa operatiboaren segimendua partekatzeke.

4. Aldi baterako lantaldeak, planaren neurrietarako, beharrezkoa den neurrien kasuan.

5. 4 lantalde sortzea aurreikusten da: (1) ordainsari-berdintasunerako (ordainsari-erregistroaren analisia), (2) zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzeko, (3) erakunde-kulturaren autodiagnostikoa egiteko eta (4) bezeroekiko egoerei buruz plantillari eginiko galdetegia aztertzeke.

7. ERRONKAK, ARLOAK, HELBURUAK ETA NEURRIAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan honen erronka nagusiek xede dute Euskotrenen emakume eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzea, eta honako hauek dira:

- Enpresan emakume eta gizonen berdintasunerako gobernantza-eredu bat ezartzea, arloan gaur egun indarrean dauden araudiekin bat etorritik.
- Enplegura jotzeko aukeran, prestakuntzan, langileen sustapenean eta lan-baldintzetan emakume eta gizonen berdintasuna bermatu eta sustatzea.
- Enpresa eratzen duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta, horretarako, norberaren bizitzaren, familiaren eta lanaren kontziliazioa sustatzea eta zaintzan erantzukizunak geure gain orekaz har ditzagun bultzatzea.
- Lan-inguruneetan eta zerbitzuetan emakumeen kontrako indarkeria matxistarekin amaitzea eta sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzea eta hari arretea ematea.
- Ingurunearekin elkarlanean jardutea eta, horretarako, beste eragile batzuekin sinergiak sortzea, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko.

Erronka horiek honako helburu eta neurrietan zabaltzen dira.

ARLOAK		HELBURUAK	NEURRIAK
1.	Kudeaketa-eredua	2	14
2.	Hautaketa, kontratazioa, prestakuntza eta sustapena	5	15
3.	Lanbide-sailkapena eta ordainsaria	1	2
4.	Kontziliazio erantzunkidea	1	3
5.	Laneko osasuna eta laneko arriskuen prebentzioa	2	11
6.	Sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutakoa	1	3
7.	Komunikazioa	3	16
8.	Kanpo-dimentsioa	4	19
GUZTIRA		19	83

Arloa	Helburuak	Zk.	NEURRIAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK (giza baliabideak eta materialak)	EZARPENA				SEGIMENDUA				ADIERAZLEAK
						26	27	28	29	26	27	28	29	
1. ARLOA KUDEAKETA-EREDUA	1.1- Berdintasun Plana garatzeko behar diren baliabideak izatea.	1	Giza Baliabideen Zuzendaritzan berdintasuna sustatzeko egitura bat izatea.	GIZA BALIAB. ZUZ./ BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X	Badago egitura.
		2	Berdintasun Planeko erlo bakoitzeko berdintasuneko erreferenteen talde operatibo bat sortu eta garatzea: BATERA TALDEA. Talde honek ordezkariak orekatu izango du sexuaren arabera, eta urtero emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko prestakuntza jasoko du.	GIZA BALIAB. ZUZ./ ZENBAIT ARLO	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X	Sortutako eta garatutako erreferenteen talde operatiboa. Parte-hartzaileen kop., postuaren eta sexuaren arabera. Egindako bilera kop.
		3	Berdintasun-plana zabaltzeko eta haren ekintzetarako asistentzia teknikoa kontratatzea.	BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Asistentzia teknikoa.	X	X	X	X		X	X	X	Kontratutako asistentzia teknikoa.
		4	Euskotrenen V. Berdintasun Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko Batzorde bat abian jarri eta garatzea; hura enpresaren alderdiak eta alderdi sozialak eratuko dute. Batzorde hau urtean 2 aldiz batuko da, jasotako genero-adierazle nagusiak eta aplikatutako neurriak ebaluatzen.	GIZA BALIAB. ZUZ./ BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. laguntza teknikoa	X	X	X	X		X	X	X	Parte-hartzaile kopurua, sexuaren eta partearen arabera. Urteko batzar kop.
		5	Berdintasun Plana garatzeko urteko aurrekontua prestatu eta onartzea, arlo inplikatu bakoitzeko.	GIZA BALIAB. ZUZ./ PLANGINTZA ETA ANALISI EKONOMIKO-FINANTZARIOA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X			X	X		Prestatutako urteko aurrekontu kop. Onartutako urteko aurrekontu kop.

		6	Berdintasun-irizpideak dituen erakunde-kulturaren egin nahi da aurrera eta, horretarako, autodiagnostiko bat egin, Bai Sareak proposatutako galdetegiaren bidez, eta Zuzendaritza Batzordean aurkeztu. Lantalde bat sortzea autodiagnostiko hori egiteko.	GIZA BALIAB. ZUZ./ BERDINTASUNA	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak. Berdintasun-irizpideak dituen erakunde-kulturarako autodiagnostikoaren tresna, Bai Sarea.					X				X	Egindako autodiagnostikoa. Zuzendaritza Batzordean aurkeztutako autodiagnostikoa. Sortutako lantaldea. Parte-hartzaileen kop., postuaren eta sexuaren arabera. Egindako bilera kop.
1.2. Berdintasun Planaren segimendua eta ebaluazioa zabaltzeko bide emango duen kudeaketa-eredua aplikatzea.		7	Berdintasun Planaren urteko programa operatiboak prestatzea egituratik, berdintasuna eta berdintasuneko pertsona erreferenteak sustatzeko eta jarraipen batzordeak onartzeko.	BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak. UPO Excel eredua	X	X	X	X		X	X	X		Prestatutako urteko programa operatiboaren kop. Jarraipen batzordeak onartutako urteko programa operatiboaren kop.
		8	Alde sozialak Berdintasun Planaren aurrekontuaren zati batean parte hartzeko prozesua diseinatu eta aplikatzea; urte bakoitzean egin beharreko proposamenak batu eta lehenetsiko ditu.	LAN HARREM. ZUZ./ BERDINTASUN ARD./ KALITATEA/ JARRAIPEN BATZORDEA	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak. Parte-hartze bidezko aurrekontuei buruzko gidak eta jardunbide egokiak.		X	X	X			X	X		Aurrekontua prestatzeko parte-hartze bidezko prozesua, diseinatu. Aurrekontua prestatzeko parte-hartze bidezko prozesua, aplikatua. Parte-hartzaileen kop., postuaren eta sexuaren arabera. Jasotako eta lehenetsitako proposamen kop.
		9	Berdintasun Plana zabaltzen hastean, Berdintasun Planarekin zerikusia duten genero-adierazle batzuk diseinatzea, gai horren inguruan gaur egun dauden araudietan oinarrituak. Jasotzeko iturriak sartzea. UNE-EN ISO 53800 araua berrikustea adierazleak eta kontuan hartu beharreko gaiak gehitzeko.	KALITATEA/ LANGILEEN KUDEAKETA	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak. Diagnostikorako adierazle bateria. UNE-EN ISO 53800 araua.	X						X			Diseinatutako adierazle bateria. UNE-EN ISO 53800 arau berrikusi da.

		10	Urtero datuak biltzea dagozkion arloetako bakoitzean adierazle horiek kalkulatzeko, eta horien genero-analisia egitea, desberdintasun-egoerak eta horien kausak identifikatzu. Datu horien bilakaera ustiatzeko eta aurkezteko sistema bat izatea, eremu desberdinetan aurkezteko. (PowerBi edo antzekoa).	BERDINTASUN ARD./ ZENBAIT ARLO/ INFORMATIKA	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak. Power BI aplikazioa.	X	X	X	X		X	X	X	Datuak urtero biltzea, adierazleak kalkulatzeko. Genero-azterketa egin da. Identifikatutako desberdintasun-egoeren kopurua eta mota. Identifikatutako kausen kopurua eta mota. Diseinatutako genero-adierazleen aurkezpena.
		11	Enpresaren kudeaketa-sistemetan eta prozesu eta prozeduretan genero-ikuspegia txertatzea, aurretik landutako adierazleetatik abiatuta. Horretarako, bilera-plan bat ezartzea dagozkion arloekin.	KALITATEA BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak. Enpresaren kudeaketa-sistemen eta prozeduren dokumentuak.		X	X	X		X	X	Genero-ikuspegia txertatu den kudeaketa-sistemaren kopurua eta mota, arloaren arabera. Genero-ikuspegia txertatu den prozedura kopurua eta mota, arloaren arabera. Egindako bileren kopurua, dagozkion arloarekin, lanpostuaren eta sexuaren arabera.	
		12	Berdintasun-planaren urteko jarraipen-txostena egitea, aurreikusitako neurrien betetze-maila baloratzeko eta jasotako adierazleak eta haien bilakaera aurkezteko, bai eta hurrengo urteetarako ondorioak eta hobekuntza-proposamenak ere.	BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak. Urteko txostenaren txantiloia.	X	X	X	X		X	X	X	Urteko jarraipen-txostena.
		13	Euskotrenen arloetan generoa zeharkako bihurtzeko gida bat egitea.	GIZA BALIAB. ZUZ.	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak. Genero-zeharkakotasunerak o gidak eta jardunbide egokiak.				X			X	Euskotreneko arloetan generoa zeharkako bihurtzeko gida.	
		14	Euskotrenen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana egitea eta negoziatzea.	GIZA BALIAB. ZUZ.	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak.				X			X	VI. Plana egin eta negoziatu da. Negoziazio batzordea sortu da. Negoziazio batzordean alde bakoitzeko parte hartu duten pertsonen	

		18	Euskotrenean LEParen bidez sartzeko eredu berriari ekitean, genero-ikuspegiko irizpideei buruzko proposamenak berdintasunean oinarrituta bidaltzea.	HAUTAKETA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Aurreko proposamenen dokumentuak. Berdintasunerako EAEko legea.	X						X			Berdintasunetik hautaketara bidalitako proposamenen kopurua eta mota. Euskotrenean sartzeko eredu berriari aplikatutako proposamen kopurua eta mota.
	2.2. Berdintasun irizpideen arabera harrera egitea	19	Harrera-prozesuan aurkeztutako dokumentazioan berdintasun-eduki berriak etengabe eguneratzea.	BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X			X	X	X	Harrera prozesuan eguneratutako edukien kopurua eta mota.
		20	Berdintasun-edukien proposamenak bidaltzea, langile berrientzako hasierako oinarritzako prestakuntza-pilula baterako. Kontratuaren lehen hilabeteetan egin beharreko pilularen diseinatzea.	BARNE KOMUNIKAZIOA/ PRESTAKUNTZA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Euskotrenen online ikastaroak. Beste erakunde eta administrazio publiko batzuen beste online ikastaro batzuk.	X	X	X	X			X	X	X	Berdintasun-edukiak proposatu dira, langile berrientzako oinarritzako prestakuntza-pilula baterako bidali da.
	2.3. Lidergo eta erantzukizun postuetan dauden Euskotreneko emakumeen ahalduntzea sustatzea.	21	Emakumezko langileek lidergo- eta erantzukizun-postuetan dituzten lidergo-gaitasunak babesteko programa bat diseinatzea eta ezartzea, eta emakumeen parte-hartzea sustatzea ahalduntze kolektiboari lagunduko dion barne-laguntzako sare batean. Eusko Jaurlaritzan eta beste erakunde batzuetan garatutako jardunbide egokiak biltzea eta Euskotrenean egokitzea.	GIZA BALIABIDEEN ZUZ. JARRAIPIEN BATZORDEA	Parte hartzen duten Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Emakume liderrentzako ikastaroak eta programak: IVAP, UPV/EHU, EUDEL, etab.								X	Emakumezko langileen lidergo-gaitasunak babesteko programa diseinatu da. Emakumezko langileen lidergo-gaitasunak babesteko programa, ezarri da. Parte-hartzaileen kopurua, lanpostuaren arabera. Laguntza-sarea sortu da. Jasotako jardunbide egokiak kopurua. Euskotrenean egokitutako jardunbide egokiak kopurua.	

2.4. Berdintasun irizpideekin prestakuntza egin	22	Berdintasun Planaren Jarraipen Batzordeko sindikatuek prestakuntza teoriko zabaletarako proposamenak biltzea eta aztertzea.	PRESTAKUNTZA JARRAIPIEN BATZORDEAREN ARLO SOZIALA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X	Jasotako eta aztertutako proposamenen kopurua eta mota.
	23	Jardunean dauden langileentzako kanpoko prestakuntza-eskaintzei buruzko informazioa, Euskotreneko lanpostu maskulinizatuen baldintza akademikoei lotuta, eta emakumeak eskaintza horietara animatzea eta horiek eskuratzeko erraztasunak ematea.	PRESTAKUNTZA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Lanbideren webgunea.	X	X	X	X		X	X	X	Jakinarazitako prestakuntza-eskaintzen kopurua eta mota.
	24	Berdintasun-irizpideak txertatzea prestakuntza ematen duten profesionalak eta enpresak kontratatzean (erabilera sexistarik gabeko materialak eta irudiak, prestakuntzaren gaian berdintasuna sustatzen duten edukiak, prestakuntza-espazioetan berdintasuneko tratatuak, etab.). Horretarako, mezu elektronikoa bidaliko zaie prestakuntza ematen duten erakunde guztiei. Aldez aurretik, irizpide horiek nola txertatzen dituzten azaltzen duen txosten bat eskatuko da, eta betetzen direla zainduko da.	PRESTAKUNTZA	Inplikatuena pertsonen dedikazio-orduak. Genero-ikuspegia txertatzeari eta genero-ikuspegia txertatzeko klausulei buruzko jarraibidea emakumeen eta gizonen berdintasunerako, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan Euskadi 2024.	X	X	X	X		X	X	X	Berdintasun-irizpideen kopurua eta mota profesional eta enpresei kontratatutako prestakuntzan. Informazio-mezua bidali da. Mezua jasotzen duten profesional eta enpresa hornitzaileen kopurua. Jasotako txostenen kopurua.

2.5. Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza ematea langile guztiei, lanpostu eta/edo maila bakoitzean genero-ikuspegia eraginkortasunez txertatu ahal izateko.	25	Berdintasunaren arloko prestakuntza-premien diagnostikoa egitea, eta urtero ematen den prestakuntza-premien galdetegian arlo eta lanpostu bakoitzean berdintasunaren arloan dauden prestakuntza-premiei buruzko galderak sartzea.	PRESTAKUNTZA/ BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X	Berdintasunari buruzko prestakuntza-beharren urteko diagnostikoa egin da.
	26	Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza-plan bat egitea urtero, lanpostuen eta/edo mailaren arabera. Nahitaezko eta borondatezko prestakuntza sartzea, bai eta oinarritzakoa, tartekoa eta aurreratua ere.	PRESTAKUNTZA/ BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Eusko Jaurlaritzako sailen eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuen berdintasun-planak.	X	X	X	X		X	X	X	Berdintasunari buruzko prestakuntza-plana egin da.
	27	Maskulinitate berriei buruzko urteko prestakuntza egitea langileentzat (Gizonduz).	PRESTAKUNTZA/ BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Gizonduz Zerbitzua.	X	X	X	X		X	X	X	Maskulinitate berriei buruz urtean egindako prestakuntza-ekintzen kopurua. Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta lanpostuaren arabera.
	28	Autodefentsa feministari buruzko urteko prestakuntza egitea, emakumezko langileentzat.	PRESTAKUNTZA/ BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Aurreko ikastaroak.	X	X	X	X		X	X	X	Autodefentsa feministari buruz urtean egindako prestakuntza-ekintzen kopurua. Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta lanpostuaren arabera.
	29	Lanpostuko genero-ikuspegitik indarkeriarik gabeko komunikazioari buruzko prestakuntza egitea, negoziazio-guneei zuzenduta (batzordea, komisioak, etab.).	PRESTAKUNTZA/ BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X	Indarkeriarik gabeko komunikazioari buruz urtean egindako prestakuntza-ekintzen kopurua. Parte-hartzaileen kopurua, sexuaren eta lanpostuaren arabera.

3. LANBIDE-SAILKAPENA ETA ORDAINSAI- BERDINTASUNA	3.1. Gardentasuna eta soldata-berdintasuna bermatzea.	30	Urteko ordainsarien erregistroa egitea, sexuaren, lanpostuaren eta mailaren arabera aldeak kalkulatu (Berdintasun Ministerioaren eredu).	LANGILEEN KUDEAKETA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. SAP-etik ateratako Gobernuaren nominen erregistroko Excel fitxategia.	X	X	X	X		X	X	X	Urteko ordainsarien erregistroa egin da. Generoko ordainsari-arrailak, osorik eta mailaren arabera kalkulatu.
		31	Ordainsari-arrakalak aztertzeko talde bat sortzea, ordainsari-kontzeptu bakoitzeko sexuaren arabera alde azterketan aurrera egiteko aukera emango duena («karrera profesionala eta jardunaren ebaluazioa» ordainsari-kontzeptu berria barne, ezarritako garapen profesionaleko sistema berriari buruzkoa), eta horiek murrizteko ekintzak planteatzea. Talde hori ordainsari-berdintasunean eta lanpostuen balorazioan eratu da, genero-ikuspegitik.	ZENBAIT ARLO // ANTOLAKETA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Berdintasun Ministerioaren tresnak eta prestakuntza-saioak.	X	X	X	X		X	X	X	Ordainsari-berdintasunerako lantaldea sortu da. Ordainsari-berdintasunari buruzko prestakuntzaren arloan jasotako ordu kopurua.
4. KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA	4.1. Kontziliazio erantzukiderako politika garatzea	32	Sektoreko (Estatu eta Europa mailan) beste enpresa batzuen kontziliazio erantzukiderako neurrien jardunbide egokiak jasotzea eta enpresan aplikatu daitezkeenak aztertzeko.	ANTOLAKETA / BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Kontzilia Sarearen jardunbide egokiak.	X		X			X		X	Bildutako jardunbide egokiaren Gobernu-taldeak ezar ditzakeen jardunbide egokiaren kopurua.
		33	Kontziliazio erantzukidea eta zaintzak sustatzeko barne-kanpaina egitea. Eta kontziliazioaren kudeaketari balioa ematea, baita kudeaketan duen eraginari eta hirugarrenengan duen eraginari ere.	BERDINTASUN ARD./ JARRAIPEN BATZORDEA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.		X		X			X	X	Kontziliazio erantzukidea eta zaintzak sustatzeko egindako barne-kanpaina. Egindako ekintzen kopurua eta mota.
		34	2025eko kontziliazio-neurriak kudeatzeko prozedura (lanaldi-murrizketak eta -egokitzapenak). Prozedura horren aplikazioaren genero-eraginaren ebaluazioa, bai eta murrizketak eta egokitzapenak sexuaren arabera bereizita aurreikustea ere.	GIZA BALIABIDEEN SAILA / ANTOLAKETA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X			X	X	X

5. LANEKO OSASUNA ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA	5.1. Genero ikuspegia laneko osasunean txertatzea	35	Genero-ikuspegitik, ekimenak egitea emakumezko langileen sexu- eta ugalketa-osasuna hobetzeko (hilekoa, menopausia, haurdunaldia, etab.), alderdi sozialaren parte-hartzearekin.	LANEKO OSASUNA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X		X			X	X	Emakumeen osasuna bizikloetatik hobetzeko egindako ekintzen kopurua eta mota.		
		36	Historia klinikorako hasierako galdetegia berrikustea eta berregokitzea, sexu- eta ugalketa-osasunarekin lotutako galderak ezabatuz.	LANEKO OSASUNA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X	Galdetegia berrikusi eta berregokitu da.	
		37	Genero-ikuspegitik, enpresako langileen osasuna hobetzeko ekimenak antolatzea, sexu batean edo bestean eragin handiena duten aldi baterako ezintasunen kausekin lotuta.	LANEKO OSASUNA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.		X		X				X	X	ABEen kausak murrizteko ekintza kopurua eta mota, sexuaren arabera.
		38	Genero-ikuspegia txertatzea Laneko Osasunetik egiten diren prestakuntza, tailer, programa eta abar guztien edukietan.	LANEKO OSASUNA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X		Genero-ikuspegia txertatu duten prestakuntza-ekimenen, tailerren edo programen kopurua eta mota.
		39	Genero-ikuspegia txertatzea langileei ematen zaizkien prebentzio-gomendioen fitxetan. Eta fitxa espezifikoren bat egin, beharrezkoa bada.	LANEKO OSASUNA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X		Genero-ikuspegia txertatzeko prebentzio-gomendioen kopurua eta mota. Emakumeei eta/edo gizonei zuzendutako laneko osasunerako prebentzio-gomendio espezifikoen kopurua eta mota.
		40	Laneko osasuneko taldeak osasunari eta generoari buruzko prestakuntza ematea, Emakundeko berdintasun-eskolen edo beste batzuen eskutik.	LANEKO OSASUNA	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.		X	X					X	X	Egindako prestakuntza-ikastaroen kopurua eta mota. Egindako ordu-kopurua. Parte-hartzaileen kopurua, lanpostuaren eta sexuaren arabera.

	5.2. Genero-ikuspegia txertatzea laneko arriskuen prebentzioan	41	Puntu kritikoen mapa egoitza gehiagotan aplikatzen aurrera egitea. Aztertu diren eta egokitzen jotzen diren hobekuntzak identifikatzea eta aplikatzea.	BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak.	X	X	X			X	X	X	Puntu kritikoen mapa aplikatuta duten egoitzen kopurua. Identifikatutako hobekuntza kopurua eta mota. Aplikatutako hobekuntza kopurua eta mota
		42	Laneko Arriskuen Prebentzio Arloko prestakuntza-proposamenak berrikustea, genero-ikuspegitik (helburuak, edukiak, etab.). Prestakuntza-ekintzak aldatzea proposamen horietan oinarrituta	BERDINTASUN ARD. PREBENTZIOA PRESTAKUNTZA	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X	Genero-ikuspegitik berrikusitako lan-arriskuen prebentziorako prestakuntza-proposamenen kopurua eta mota.
		43	Genero-ikuspegia txertatzea (sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa eta dagokion genero-azterketa) 2026ko arrisku psikosozialen hurrengo ebaluazioan. Horretarako, erakunde hornitzaileari aplikatzeko eskatu behar zaio.	PREBENTZIOA	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak.	X					X			Genero-ikuspegia, arrisku psikosozialen ebaluazioari aplikatuta.
		44	Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia aplikatzeari buruz Osalan egiten ari den txostena aztertzea eta planteatutako gomendioak enpresan aplikatzea.	PREBENTZIOA	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak.	X					X			Osalanen txostena, aztertutako laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia aplikatzeari buruzkoa. Txosten horretan aplikatutako gomendioen kopurua eta mota.
		45	Eguneratzen diren lanpostuetan sexu-indarkeria jasateko arriskua sartzeko laneko arriskuen ebaluazioan. (Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 12. artikulua)	PREBENTZIOA	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak.	X	X	X	X		X	X	X	Sexu-indarkeria jasateko arriskua dakarten arriskuen ebaluazioa duten lanpostuen kopurua eta mota.
6. SEXU-JAZARPENARI ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENARI	Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzea eta arreta ematea	46	Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa aldi berean behin zabaltzea langile guztiei, informazio-liburuxken eta prestakuntza-pilulen bidez, eta eduki hori lanpostuen Laneko Arriskuen Prebentzio ikastaroetan txertatzea.	COMPLIANCE / PREBENTZIOA	Pertsona inplikatuak dedikazio-orduak. Jazarpen psikologikoa	X		X			X		X	Egindako hedapenen kopurua eta mota. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikastaroa, protokoloaren

					gorabeheren eguneroko lanean.									hedapena barne hartzen duena.
		47	Prestakuntza espezifikoa sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren aholkularitza konfidentzialerako.	GIZA BALIAB. ZUZ.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.	X						X		Aholkularitza konfidentzialerako berriaz egindako prestakuntza-orduen kopurua, sexuaren eta lanpostuaren arabera.
		48	Langileei inkesta bat egitea, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren ezagutza-maila eta protokolo hori abian jarri zenetik egoera horiek bizi edo ikusi izanaren pertzepzioa baloratzeko. Bizitako edo ikusitako jazarpena lankideek, nagusiek, erabiltzaileek edo enpresa hornitzaileetako edo kanpoko enpresetako langileek egin duten galdetuko da.	BERDINTASUN ARD.	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak.		X					X		Inkesta egin da. Erantzun kopurua, sexuaren arabera.
7. KOMUNIKAZIOA	7.1. Berdintasunezko komunikazio inklusiboa egitea, enpresako dokumentu eta barne-komunikazio guztietan hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiltzeaz harago.	49	Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistaren pistak eguneratzea, Euskotrenen irizpideak aurkeztu dituen dokumentu baterantz (estilo-liburua), komunikazio berdinezale eta inklusiboa egiteko, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez ezik, bileretan, lantaldeetan, ekitaldietan eta jardunaldietan, webgunean eta sare sozialetan eta abarretan komunikazioa ere barne hartuta.	BERDINTASUN ARD./ PRENTSA ETA KOMUNIKABIDEAK	Pertsona inplikatuena dedikazio-orduak. Beste erakunde publiko eta pribatu batzuen hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eta berdintasunezkoa egiteko gidak eta eskuliburuak.	X		X				X	X	Berdintasunezko komunikazioari eta komunikazio inklusiboari buruzko dokumentua egin da.
